Liluratura

Euskara zuzentzaileen ezkutuko lana

Literatur lanak hizkuntza aldetik orrazten dira, aholku artistikoa emateaz gain

Ezaguna da argitaratzailearen lana zertan datzan. Liburuaren lehenenego kopia irakurri ohi du, eta inprentara bidali aurretik orraztu beharreko zatiak jakinarazten dizkio idazleari. Baina badago beste alderdi bat ere. Gaur egun euskaraz argitara ematen den gehiena zuzentzailearen galbahetik pasatu ohi da. Bai irakurtzen ari zaren testu hau, bai literatur lanak.

Urtzi Urrutikoetxea / **Bilbo**

IDAZLE guztiekin ez dago lan bera jakina. Euskara lan tresna dutenek —kazetariek, teknikariek....— hurbilagotik jarraitu ohi dituzte Euskaltzaindiaren azken arauak, baina beste batzuek behinola ikasitakoari eusten diote. «*Batetan, batzu* eta antzeko deklinabidea aldatu zela badira sei-zazpi urte, baina batzuek eskola dute ikasteko garai, eta behin utzita ez dira arduratzen arauak aldatu ote diren», dio Xabier Mendigurenek, Elkarlanean argitaletxeko editore eta zuzentzaileak.

Batzuetan editoreak egiten ditu lan biak, Mendigurene kasuan bezala. «Aholku literarioa eta hizkuntzazkoa batera ematen ditut, eta erdian biak batzen dituen alde estilistikoa dago». Beste argitaletxe batzuetan ardurak banatu egiten dira, eta idazle batzuek beren beregi eskatzen diote lagunen bati hizkuntz analisia egiteko.



MANU MUJIKA

Xabier Mendigurenek egiten ditu editore eta zuzentzaile lanak.

XABIER MENDIGUREN

«Aholku literarioa eta hizkuntzazkoa batera ematen ditut, eta erdian biak batzen dituen alde estilistikoa dago»

MIKEL ELORZA

«Oreka izan behar da, batzuetan sokatira da, zuzentzaileak batera eta idazleak bestera, baina argi dago azken hitza sortzaileak izan behar duela beti»

Zuzenketen onarpena

Susa argitaletxean Mikel Elorzak orraztu ohi ditu idazleak editorearen aholkuak aintzat hartu ostean egindako azken lanak. «Oreka izan behar da, batzuetan sokatira da, zuzentzaileak batera eta idazleak bestera, baina argi dago azken hitza sortzaileak izan behar duela beti».

«Hasierako jarrera haserrea da idazlearen aldetik», dio Gorka Arrese Susako editoreak. «Arau batzuk askotxo aldatu dira azkenaldian, eta batzuk erre egiten dira idazlana zuzenketak seinalatuta itzultzerakoan. Hori bai, liburua argitara eman ostean batek baino gehiagok eskertzen duela iruditzen zait, baina hasieran haserrea editore edo zuzentzailearentzat da». *Ohiko* hitzaren kasua dakar Arresek hizpidera. «Duela urte gutxi erabaki zuen Euskaltzaindiak ordura arte nagusi erabiltzen zen zen *ohizko* beharrean *ohiko* izan behar zuela, eta halaxe esan izan diegu liburuen egileei. Orain, berriz, biak onartu dira, eta batzuk lehen eta orain berriz erretzen dira horrelakoekin».

Baina, oro har, editore eta zuzentzaile guztiek argi daukate azken erabakia idazlearena dela. «Nahikoa lan egiten du diru apurra ateratzeko, eta badira arrazoi bat edo bestegatik bereziki maite dituzten hitzak», dio Xabier Mendigurenek, galbahearen estuaz hitz egitean; «intsumisiorako tarte hori utzi behar da». Arresek eta Elorzak ere bide horretatik jotzen dute. «Bere inguruan horrela erabiltzen delako, fonetikoki atseginago zaiolako... Inoiz tematu egiten da idazlea hitz batekin, eta begirunez ez ezik, hizkuntza estandar burutu gabea idazleak ere egiten duelako errespetatu behar zaio hautua».

Frantzian batek baino gehiagok egin dio muzin azentu marka berriei azken hamabost urteetan. Gurean Joseba Sarrionandiaren ortografia urrundu ohi da Euskaltzaindiak araututakotik. «Egoera berezia dela eta, ez dago berarekin eztabaida izaterik, hortaz errespetatu edo ez da gakoa, eta aukeran berak idatzitakoa, horrela uzten da», azaldu digu Xabier Mendigurenek.

Hiztegia eta mekanismo sintaktikoak

ERA profesionalean egin duenik ez badu uste ere, lagun bati baino gehiagori miatu dio testua Juan Garziak. Distantzia hartzearen garrantzia azpimarratzen du Garziak. «Idazlea askotan itsutu egiten da idazkuntza lanean, aurretik ikusi gabea du, eta eskertzen du gutxieneko urruntasun hori». Euskararen egoeran arauen aldekoa da Garzia. «Inoiz erabat onartu ez arren, beharrezkoak direla uste dut», baina bi zuzentzaile mota daudela dio, «araudiaz estu-estu arduratzen direnak, beraz, gauza formala dena, eta harago joatea ere badago, hau da, testuaren funtzionamendua ikusi, bestelako ordenamendu eta mekanismo sintaktikoak nola erabiltzen diren. Zuzenketa kontu globala da».

Alberdania argitaletxeko lan batzuekin lan egin izan du Juan Garziak, eta beste idazle batzuek ere beragan jarri dute konfiantza. Era horretan, berak emandako aholkuak zabal onartu ohi dizkiotela dio Garziak. «Uste dut denek eskertzen dutela irakurlearen ikuspuntu hori aurretiaz izatea», esan du, baina beretzat ere zuzentzailea nahiko lukeela dio. «Azkenean zuzentzaile eta idazle garenok gelditu ohi gara lana zuzenduko digun pertsonarik gabe».

Itzultzaileekin izan ohi da berezia zuzentzaile lana. Izan ere, beste testu batekiko fidelta-sunak dakartzan mugak eragina dauka testuaren funtzionamenduan.

ertzetik

Manu Lopez Gaseni

Teknologia berriak

■ Teknologia berrien eta zaharren arteko etengabeko erronka bizirik egon dabetidanik (*Video killed the radio star*), eta erraz irudika daitezke amanuenseek Gutemberg-en asmakizun berriaren aurka burututako manifestazioak. Antzeko arazoa oraingoa, konputagailu gero eta pertsonalagoek (liburu elektronikoek barne) ohiko euskarriei egiten dieten konkurrentzia bidegabearekin. Baina, azken batean, zaharrak berri: idazketa alfabetikoak bere horretan dirau, milurteen iraganaren brisara leunari jaramonik egin gabe.

Aurreko batean ni ere teknologia berrien gurdira (berritu beharko litzatekeen metafora paradoxikoa da hauxe) igo nintzen eta, suediar teknologiako telefono mugikor bat eskuratu nuen (berriro ere hegoaldearekiko —italiarrekiko— errezeloa). Bertako funtziorik interesgarriena, munduko azken muturrean eskurik gabe hitz egiteko aukera bera baino areago, testumezuak jaso eta igortzeko posibilitatea da. Berehala aktibatu nuen, noski; baina orduan konturatu nintzen bertan sar daitekeen digito kopurua mugatua dela; alegia, bertan ezin daitekeela euskarak aspalditik behar zuen Nobela idatzi. Alabaina, ezin aproposagoa zen ipuin zibermotzak edo G. Markuletaren bertsioaren arabera, «ipuin hiperlaburrak» lantzeko. Denborarik galdu gabe (baina tarifa murritzeko ordutegian), ekin nion lanari. «Ez dut etortzen ikusi —aitortu zion epaileari aire istripuan eulia hiltzeaz akusaturiko kristalak—», bidali nion urruneko lagun bati. Handik gutxira, erantzuna iritsi zitzaidan: «klarionak bere testamentua idatzi zuen arbelean azken ha(u)tsa bota baino lehen», erantzun zidan Izaskun lagunak. Hurrena, igarkizun matematiko bat proposatu nion, baina, erantzuna eman beharrean, mezu kriptiko hau bidali zidan: «Bata, bia, hirua eta bosta dotore-dotore jarri ziren lehengusuen afarira joateko». Txundigarriak dira katxarrpo hauek, aizu!